

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko azaroak 26 • 156. zka.



Nekazal munduan okupak

Txiki Zamora eta Benito Arnaizen esperientziak

Iturririk iturri: Rosa Del Aguila ■ Iritzia: Deiane Madinabeitia ■ Kirolak: Jabier Eraña



Eskoriatza eta Aretxabaletatik urbanoan joanda AIT-ITV eta autobus geltokitik 100 metrora

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



DENDA BERRIA!

Gotzon Agirrezabal

Tel./Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:
10:00-13:00 eta 16:00-20:00.



Amillaga 5 • BERGARA • Renault-en ondoan

Aretxabaletan zabaldu berria



Farma Bizi parafarmazia

Zer eskaintzen dit Farma Bizi parafarmaziak?

- Farmazian lizentziatua den baten aholkua.
- Honako zerbitzu hauek:
 - Medikuntza naturala.
 - Txinatar Medikuntza tradizionala
 - Akupuntura
 - Masaia
 - Osteopatia

Zer da parafarmazia bat?

Farmazian eskeintzen diren produktuak, medikamentuak ezik, saltzen dituen denda.

Zer eros dezaket Parafarmazian?

Sendagai naturalak, sanitatuzko produktuak (gasak, tiritak...), ahoa eta gorputza garbitzeko produktuak (xaboiak, pasta...), dermokosmetikako produktuak (krema hidratanteak, makilaia...), haurrentzako produktuak (txupete, biberioak, jostailuak...), produktu ortopedikoak (oinetakoak, galtzak), produktu dietetikoak...



HIESari buruz nahikoa informazio dago?

Monse Puerto

(Etxekoandrea)

Oraindik falta dela iruditzen zait nahiz eta gero eta gehiago egon.

Gizartean gero eta onartuagoak direla HIESadun gaixoak uste dut.



Jesus Erostarbe

(Langilea)

Nik uste informazio dexte dagoela baina behar bada gehiagok falta egingo du.

Gizarteak gehiago onartu beharko lituzke gaixoak, oraindik lan asko dago egiteko.




Mikel Uribetxebarria

(Langilea)

Ez, oraindik ez dago nahikoa informazio kalean.

Gurea bezalako herri txiki batean oraindik ez dakigu gaixoa onartzen, behar bada oso gutxiri tokatu zaielako parean. Kultura falta dago.



Resu Aretxaga

(Jubilatua)

Bai, informatu eta ulertu nahi duenak badauka nahikoa informazio.

Oraindik beldur handia dagoela iruditzen zait gaixotasunaren inguruan eta gaixoak onartzeko ez gaude prestatuak.



e s k u t i t z a



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Oharra

Azken egunotan behar den moduan identifikatu gabeko eskutitz batzuk jaso ditugu. Gure aldetik ez dago argitaratzeko inongo arazorik, baina iritziek balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, karta guztiek identifikatuta etorri beharko dute: izen-abizenak eta telefonoa adierazita.

Gehienez 200 hitzetako gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

Iritzia emateko "iritzi atala" ere herritar guztientzat zabalik dagoela gogorarazi nahi dizuegu.

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzaila:** Janette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Bederatzi puntu onartu ziren asteleheneko osoko bilkuran



Gipuzkoako plazaren hiriztatze lanak 4 hilabetetan egingo dira

Pasa den asteleheneko osoko bilkuran 9 puntu izan ziren aztergai.

1. puntuan, Kepa Urrea Langraitzen edo Euskal Herriko beste espetxe batean geratzea eskatu zen. Akordio hau aho batez onartu ostean espetxetako zuzendaritzari, arartekoari eta Eusko Legebiltzarreko giza eskubideen batzordeari bidaltzea erabaki zen.

2. puntua enpresa berrien ekimena sustatzeko ordenantzaren hasierako onarpena izan zen. Bere helburua sortu berri diren enpresei diru laguntzak ematea da, martxan datorren urtean jarriko delarik.

3.ean Udaletxeak Sudadesari Durana 13ko etxebizitza erostea onartu zen, 3 milioiko gastuaz.

4. puntuan 20-E zonaldea (Abrasisbas) hiriztatzeko hitzarmena Amaral promotorearekin. Azbetik espaloi bat jarriko da Oro edo Larrinbera doazenentzat eta ur zikinen kanalizazioa ere egingo da Durana kaletik doan kolektore batekin bat eginaz.

5.ean, Jakion enpresaren 40 bat

akzio erostea, 800.000 pta.ko gastuaz, onartu zen.

6. puntua Gipuzkoako plaza hiriztatzeko proposamena izan zen. Bertan jolas lekua, egoteko tokia eta aparkamenturako zonalde bat jarri nahi dira. Datorren urteko Otsaila inguruan hasiko dira lanak eta 19 milioi inguruko kostua izango du.

7. ean zenbait lanposturi hizkuntz eskakizuna ezarri zaiela zehaztu zen eta liburutegiko langilea, beste hainbat udal langile bezala, laboral izatetik funtzionari izatera pasako dira.

8. ean Udaletxeak aseguru polizak kontratatzeke erabakiaren berri eman zuen. Hiru polizok kalte materialei, erantzunkizun zibilei eta erantzunkizun profesionalei aurre egiteko izango dira.

9. puntuan Udala eta argazki taldearen arteko hitzarmena onartu zen. Argazki taldekoak argazki artxibo bat sortzera konprometituko dira horretarako diru laguntzak jasoko dituztelarik.

Berreskuratze kanpaina zabalik Deba Garaiko Ospitalean

1994tik Deba Garaiko Eskualde Hospitala mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat lagungarri diren materiala jasotzen ibili da: aulki gurpildunak, takatakak, makuluak... Kanpainak arrakasta handia izan du, baina eskaria handia denez, berriz luzatu du deialdia. Beraz, era honetako tresnak dituztenek Begoña Falces Gizarte laguntzaileaz harremanetan jar daitezke, 943 03 52 58 telefono zenbakian.

Kooperatibismoaren Unibertsitate Institutua

Pasa den hilaren 19an, "Gizabidea" fundazioak Mondragon Unibertsitateak sortu berri duen Kooperatibismoaren Unibertsitate Institutua, KUI, aurkeztu zuen prentsurrekoan. Bere helburua balio kooperatiboak eta bereziki Arrasateko kooperatibari dagozkionak ezagutu, ikertu, gaurkotu eta hedatzea izango da.

Institutu honen aurkezpen ofiziala datorren ostegunean, hilak 26, XII. Arizmendi topaketen barruan izango da, bere ardura-dunak diren J.M^a. Larrañaga eta Jon Sarasuaren eskutik. Ekitaldi honetan Jesus Mari Herrasti "Gizabidea" fundazioko lehen-dakariak eta Ignacio Lakunza "Mondragon Unibertsitate"ko errektoreak ere parte hartuko dute eta amaiera Sabin Intxaurraga sailburuak emango dio.

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behe
☎ 943 77 00 33/79 42 56



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari!

Kanpaina bultzatzeko herri batzordea sortu nahi da Aretxabaletan

Pasa den hilaren 16an Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluek martxan jarritako "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari!" kanpaina aurkeztu eta beraren berri eman zigun atxabaltarroi Larrait Mendizabal Gipuzkoako arduradunak.

Helburu eta planak

Kanpaina hau euskararen normalizazioaren diagnostikoa egin eta ez zihoala batere ondo ikustean sortu zen. Kontseiluko asmoa, hegoaldean normalizazio hau bizkortzea eta iparraldean euskarari bultzada handi bat ematea litzateke. Hau lortzeko, berriz, bi alderdi jorratu nahi dira batetik, euskara elkarteak bildu eta bateratura lan egitea eta bestetik, eragile sozial eta politikoak parte hartzea bultzatzea, beraien babes eta jarraitzeko konpromezua lortuz.

Kanpainako ekintzak

Kanpaina honetan hiru ekintza garrantzitsu planteatu dira: herrietan batzordeak antolatu eta akordio soziala herriratzea, lanordu bat euskararen alde ematea langile eta enpresarioek eta abenduaren 26an Euskal Herriko 5 estadiotan jaialdi erraldoiak antolatzea.

Herri batzordeak

Kanpaina honi eta batez ere euskarari laguntzeko herri batzordeak sortu dira. Larrait Mendizabalen esanetan "kanpaina aurrera joan ahala, gero eta batzorde gehiago

*Eguenean
Setan
izango da
herri
batzordea
osatzeko
bilera
udaletxe
zaharrean*

sortzen ari dira. Orain arteko jarra oso ona izan da, ia Gipuzkoa osoan batzordeak eratu baitira".

Herri batzorde hauetan edonork parte har dezake baina batez ere taldeei luzatzen zaie deialdia ikastetxe, guraso elkarte, sindikatu, kirol talde, elkarte gastronomiko, ... adin eta pentsamolde ezberdinetako jendea nahi da. Propaganda banatu, eragile sozialekin hitz egin, amai-era ekitaldirako giroa berotu, ikuskizunak prestatu, ... lan handia dago egiteko. Hauen esku egongo

da hein handi batean kanpainak arrakasta izatea, beraiek iritsiarazi behar baitie eragile sozialei eta herriari euskararen aldeko akordioaren garrantzia.

Pertsona eta indar ugari bildu dira batzorde hauen inguruan; helburua, berriz, bakarra da: euskarari baiezkota ematea. Zuk ere baiezkota hori eman nahi baduzu azaroaren 26an arratsaldeko 8etan udaletxe zaharrera hurbildu Aretxabaletan batzordea osatzeko bilera egingo baita.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Abenduaren 1ean HIESaren eguna

HIESaren aurkako batzordea GIB/HIESdunen errolda osatzearen kontra

Abenduaren 1ean urtero bezala HIESaren egun internazionala ospatuko da. Hori dela eta udaletxeke ongizate arduradunek informatze kanpaina bati ekin diote ikastetxeetan. Aurreko urte batzutan kanpaina hau herritarrei begira egiten bazen ere, oso jende gutxik parte hartu ohi zuenez, aurten 1. mailako DBHtik gorako ikasleei zuzendu zaie.

Egun hau aprobetxatuz HIESaren aurkako batzordeak Estatu Zentraleko Osasun Ministeritzak egiteko asmoa duen GIB/HIESdunen errolda osatzearen kontra azaldu nahi du. Errolda honetan gaixotasundunen datu guztiak jaso nahi dira, izen-abizenak, adina, sexu harreman mota, aborturik izan duen, kartzelan egon den, ... gero datu

hauei zein erabilera emango zaien jakin gabe. GIB/HIESdun gizakien eskubide unibertsaleko 6 eta 7. puntuetan oinarritzen dira erroldari kontra egiteko.

6. Konfidentziasuna eta intimitate eskubidea zehatz mehatz bete behar da. Kutsatuaren baimenik gabe, GIBdunaren edo gaixotasunaren egoerari buruzko edozein erreferentziak gaur egun dagoen legea hausten du.

7. Birusaren eramailearen izaera jakiteko edozein froga, eta baita beste edozein azterketa ere, borondatezkoak dira eta ezin daitezke afektatuaren baimenik gabe egin.

Salaketa honen bidez, Aretxabaleta eta Euskal Herri osoa errolda honen aurka jar dadin nahiko luke HIESaren aurkako batzordeak,



Aurten ikastetxeetan ari da informazio kanpaina egiten

GIB/HIESdunen giza eskubideak babestuz eta era berean elkartasuna adieraziz.



Leizarra Musika Eskolako kontzertua

Ekitaldi polita eskeini zuten Leizarra Musika Eskolako ikasleek pasa den eguakotxean Zaraia zineman. Lehenengo denek batera zenbait lan jo zituzten eta ondoren bakarka eta binakako ekitaldiak etorri ziren. Pianoa, tronpeta, soinua, txistua, ... zer ez dakite jotzen haur eta gaztetxo hauek! Gogoz txalotu zituzten bertara hurbildutako guraso eta lagunek.

Lubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



Esko Sport

**Kirola eta Sport
moda Leintz
Bailaran**

Intxaurtxueta, 5
☎ 943 71 52 96 ESKORIATZA

Larunbat arratsaldetan
zabalik



Oier Sarasua eta Andoni Aranak kontzertu bikaina eskaini zuten

Kultur errota hasi da

Kultur errotak hasi du bere ibilbidea herrian eta gure bi herritarren eskutik gainera. Domekan Oier Sarasuak eta Andoni Aranak azken urteotan landutako abestiak aurkezteko aukera izan zuten, diapositiba batzuekin batera. Berarekin batera Xabier Muguruzak eta honen taldeak abestu zuten.

Esan beharra dago, ekitaldira lagun ugari hurbildu zela, eta Udaletxe zaharreko gela txiki gelditu zen ikusle guztientzat.

Aurrerantzean beste hainbat ekitaldi ere antolatuko dira kultur errotaren barruan. Hurrengo abenduaren 4an Mixel Ducau eta Caroline Philipsek eskainiko dute.

Unicefek antolatutako hauteskundeen emaitzak

Pasa den zapatuan, hilak 21, Unicefek umeentzako antolatutako hauteskundeak ospatu ziren herrian. *Haurren Ahotsa* programarekin gizarteak haur eskubideei buruz informazio gehiago izatea zen kanpaina honen helburua.

Ludotekan egin zen bozketa eta 8 eta 11 urte bitarteko 190 ume deituak bazeuden ere, 122 hurbildu zi-

ren bertara. Boto txartelean aurkezteko zituzten eskubideen artean botu gehien lortu zuena, 52rekin, familia izan zen. Ondoren pakea 16 boturekin eta hirugarren nortasuna eta elkartasuna biak 11na boturekin. Orain Euskal Herriko haurrek emandako botu guztiak zenbatu eta emaitzarekin manifestu bat aterako da.

Herriko 23 gazte soldaduskara deituak

Pasa den azaroaren 13an, aurten soldaduskara joatea tokatzen zaien gazteen zozketa burutu zen. Gero eta mutil gutxiago dagoenez, zozketa barruan sartu denak ez dauka libre geratzeko aukerarik. Aurten Aretxabale-tako 23 gazte, 1972 eta 1980 urte bitartean jaiotakoak, sartuko dira eta denei "Región Militar Noroeste" delakoa tokatu zaie, hau da, Burgosetik Huescaraino doan zonaldea. Gazte gehienek maiatzean joan beharko dute tokatutako lekuetara.

Kolektore lanak Araba Ibilbidean

Bizkaia kaleko obrak bukau samartuta egonik, nahiz eta kaleak oraindik itxita jarraitu, Araba Ibilbidea pasa dira orain lanak. Lan hauen hasieran ur hodi bat apurtu eta aurreko astelehenean, hilak 16, barra barra joan zen ura Araba Ibilbidean beherantz. Udaletxeko teknikari eta langileak estu eta larri ibili ziren arazoa lehenbailehen konpondu ahal izateko. Belorrieta eta Loramendi arteko tartea berriz, jadanik zabalik dago Araba Ibilbidearen itxierak ekarriko dituen trafikoa arazoak arindu eta bertako aparkalekuak berreskuratuz.

kalendarioak

Martín
RELOJERIA • BITXITEGIA
Bere bezeroen zerbitzura
Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK
RKLU
URKULU, S.L.
Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Pelikularik hoberenak
DON BIDEO
Lezama Merkatal zentrua
ARETXABALETA

OSKAR
HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

Rosa Del Aguila

Eskulan ikastaroetako irakaslea

Zazpi bat urte pasa dira Rosak, gogo gutxikin gainera, lehenengo aldiz pintzel bat hartu zuenetik. Orain eskulanei buruz asko daki, baina ikasten jarraitzen du eta baita dakiena erakusten ere.

Bere etxean eskulanak "amaren gauzak" direla esan arren, urte batzuk barru bis-taratu daitekeen artista bat egon daiteke ezkutatuta.

- Noiztik eta nolatan da-torkizu eskulanak egiteko afizioa?

- Ez da txikitako gauza. Orain zazpi bat urte beste lagun batek bultzatuta jaiotza bat egiteko ikastaro batera etorri ginen. Orduan ez nuen gogo haundirik, baina hasi ostean asko gustatu zitzaidan eta geroztik ez naiz gelditu.

- Klaseak emateko asko jakin behar al da?

- Bai, klaseak emateko prestatu beharra dago jendeak eskulan mota ezberdinak eskatzen dituelako ez-tainua, marketeria faltsua, Osti-ralero Bilbora joaten naiz gehiago ikasi eta prestatzera.

- Noiz hasi zinen ikastaroak ematen?

- Orain bi urte inguru. Kulturatik deitu zidan Inmak eta hasieran eze-tza eman banion ere, gero zergatik ez? pentsatu nuen eta horrelaxe geroztik hemen nabil.



"Momentu honetan eskulanak modan daude"

- Zenbat talde dituzu momentu honetan?

- Lau Aretxabaletan, bi Musakolan eta talde bat Garagartzan, zazpi guztira. Lan asko da, baina oso gustora nabil.

- Zein eskulan mota duzu gustokoen?

- Irudiak kalkatu eta gero gainetik margotzea asko gustatzen zait, batez ere umeendako gauzak egitea, aulki txikiak, pertxeroak, ... Orain dibujoko ikastaro batean ere banabil.

- Gero eta emakume gehiago ikusten da ikastaroetan zergatik dela uste duzu?

- Momentu honetan eskulanak modan daudela uste dut. Emakume batzuk gauza asko egiteko asmoz etortzen dira beste batzuk, berriz, lasaigarri gisa hartu eta erlajatzera datoz.

- Mutilik ba al duzu klaseetan?

- Aretxabaletan ez, Musakolan, berriz, jubilatutako talde bat dut eta bertan bi gizonezko daude, denetik egiten dute eta oso gustora gainera.

- Edozeinek egin ditzake eskulanak?

- Denek ez daukate esku bera, baina margotzen txarra izan arren, marketeria faltsurako ona izan daiteke eta alderantziz. Zerbait denek egin dezaketela uste dut.

- Aurrerantzean honetara serio-ago dedikatzea pentsatu al duzu?

- Ez, ez dut inoiz pentsatu. Nire garaian aukera izan banu, behar bada Arte Ederrak ikasiko nituzkeen, baina orain ... Ez da denbora asko oleoa ikasten hasi naiz eta oso gustoko dut gainera, baina horrek ez du esan nahi margolaria izateko asmorik dudarik. Dena den nork daki...

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia


Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta

OSKAR
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

Izozkitekari-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABALETA



Zure lehen erosketan kupo! hau aurkeztu eta %15eko deskontua izango duzu!
98-12-696 arteko eskaintza

Berrikuntzak beti dira ongi etorriak, are gehiago ATLASen freskotasuna eta interesa elkartzen dituztenean. Zerkaosteta kaleko 15.ean dago eta 100 m²ko erakusketa dauka. Eskaintza zabala du beraz, gaur egungo giro dinamiko eta gaztearekin.

IZENA: ATLAS
IREKITZE EGUNA: 1997.eko iraila
TOKIA: Zerkaosteta, 15
ZABALERA: 100m²ko erakusketa
ARTIKULUAK: Sport arropa, oinetakoak eta osagaiak
ESTILOA: ATLAS, arropa eroso, fresko eta gaztea.
DESKRIBAPENA: Etengabeko eboluzioan dagoen enpresa gaztea, kalitate/prezio erlazio ezinobea eskaintzen duten markekin.
BESTE DENDA: Okendo kalea, 4 • DONOSTIA

Zerkaosteta, 15, Tel.: 943 79 55 05 • ARRASATE

inpresioak • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak • fakturak • tarjetak • pegatinak • aldizkariak • errekordator supuestoak • boletinak • liburuak • katalogoak • aldizkariak • errekordator supuestoak • boletinak • loteria • posterrak • sarre egitarauak • kartelak • libretak • pegatinak • aldizkariak • presupuest egitarauak • kartelak • libretak • pegatinak • aldizkariak • presupuest publikidadea • errifak • lotazioak • inpresioak • jai egitarauak • katalogoak • fakturak • aldizkariak • errekordator supuestoak • boletinak •




Araba Ibilbidea

20550 ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4

Tfnoa.: 943 79 18 44

Faxa: 943 79 29 41



EGUZKIGRAF

inprimategia



Obrak bai, baina gero ez dena hankaz gora utzi

Ziur nago gure Udaletxeak aha-
legin guztiak egiten dituen herria
txukun edukitzeko, baina egia esan,
uste dut badagoela herriaren atal bat
guztiz alde batera utzia dagoena:
Portasolgo goi aldea (erreka ertzean
dauden lurak batipat).

Auzune bakoitzak bere koplak
izango dituen arren, Kirol-Etxe
ingurura heldu ahala konturatuko
zarete herria zatartuz dihoala, eta
zenbat eta gorago jo, orduan eta lo-
tsagarriago eta arriskutsuago da-
goela dena.

Azken urte hauetan obra mordo-
txoa jasan behar izan dugu Por-
tasolen. Industrialde eta futbol-zelai
berria egin ziren, futbol-zelai
zaharra eskonbrera bat eginda utzi
zutelarik; Ibarra-Berriko etxebizi-
tzak ere eraiki dira noizbait; ibaia
bera ere bideratu zen, ingurua
guztiz apurtuz.

Kontua da luzaroan gaudela
obrek suposatzen duten zarata eta
hautsa jasaten eta badirudi oraindik
ere itzelak aguantatu beharko
ditugula (kolektorea, autopista,...).
Hobekuntzarik ikusiko bagenu
sikiera, ongi etorriak izango lirake
obra horiek.

Ara, konturatu al zarete nola
dagoen gure auzoa?

Kaleko argi-indarra probisionala
daukagu, erreka ondoko hesia (hau
ere probisionala, noski) lurrean
dago toki bat baino gehiagotan. Inor
errekara eroriko balitz orduan
izango lirake lamenteuak. Bestalde,
gas naturala sartu digute arestian,
horretarako asfaltoa zulatuta utziz.

Besterik? Ba, bai. Oraindik gau-
za mordoa dago esateko. Aurtengo
neguan atxabaltarron urak Urkuluko
biltegian jaso beharrean, futbol-
zelaira joateko egin zuten zubi
berriaren ondoan formatzen den
putzu haundi batean bilduko omen
dituzte, zeren eta euria egiten duen
bakoitzean ito beharrean ibiltzen
gara. Hori gutxi balitz, trafikoa asko
ugaritu da baina ez da jarri trafiko
hori erregulatzeko seinalerik, ez eta
aparkatzeko araurik. Bestela galdetu
Eguzki-Alde Elkartea dagoen
plazoletan bizi direnei nola dau-
katen kalea.

Gogoratu guk geuk ere beste
guztiok bezala ordaintzen ditugula
zergak eta kontribuzioak eta
gutxien-gutxienez segurtasun apur
bat eta inguru txukuna edukitzea
merezi dugula.

Bukatzeri noa, bai. Ea pataleta
honek ezertarako balio duen. Dena
dela, agur esan aurretik azken
arrangura bat bota behar dut: ez
dakizue, lagunok, nolako tortura
den larunbatero eta igandero UDA-
koen megafoniak eskaintzen digun
musika emanaldia. Dezibelioak hor
ibiltzen dira "Bexamela eta pas-
telarekin" dantzan, baina guk ezin
izaten dugu siestarik bota (behintzat
nire urte beteko alabatxoa esnatzea
lortzen dute beti), ez eta telebista
entzun bolumena topean jarri
barik. Berriz esango dut: ez dago
eskubiderik.

Deiane Madinabeitia

**"Konturatu
al zarete nola
dagoen gure
auzoa?"**

**ANDRA
MARI**
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

LEIBAR
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA

MEMESA S.L.
Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 943 77 11 75
ARETXABALETA

Okupak mendira igota

“Okupa” hitza azken urte hauetan sarritan ikusi eta entzun izan dugu komunikabideetan eta beti hirietako etxebizitza hutsekin lotzen da. Badaude, ordea, hirietan geratu beharrean herri txikietara aldegiten duten “okupak” isiltasun, lasaitasun eta agian askatasunaren bila.

“Okupa” horien artean bi atxabaltar daude Nafarroako herriska ezberdinetan barneratuta, Txiki Zamora Arizkuren herrian eta Benito Arnaiz, Artangan.

Arizkuren Nafarroako Artze bailaran kokatuta dago, Itoizko urtegitik oso gertu. Bertaraino ezin da kotxez heldu, beraz, azkenengo hiru bat kilometroak oinez egin beharrekoak dira. Artze bailara herri txikiz osatua dago, laister Itoizko urek desagertaraziko dituzten herriskez, Itoiz, Nagore, Artozki, Artze, Arizkuren, ... Jende nagusia bizi da herri hauetan, jende oso ireki eta apala, beraien herrietatik aldegitetik nahi ez dutenak. Hasiera batean harriturik begiratu bazien ere kanpotik zetozen okupa arraro hauei, orain elkarrekin daude Itoizko arazo larri honen aurrean.

Herrien eraberritze proiektuak

Arizkuren herriko proiektua orain lau urte sortu zen insumisotalde batek antolatutako akanpada baten ostean. Madriletik ihesi zertorien jendea zen eta nekazal okupazioaren inguruko proiektu txu-



Benito eta Txiki mahai inguruan fin fin afaria prestatzen

kun bat zekarten. 40 bat lagun animatu eta kontzertuak egin eta errifak atera zituzten materiale eta lanabesak erosteko dirua lortzeko. Hasieran militarren kanping denda haundi batean bizi izan ziren lehenengo etxea konpondu zuten arte.

Artangako proiektua, berriz, orain sei bat hilabete sortu zen okupatutako beste herri batetik zertorien jendearen eskutik. Bien helburua antzekoa da, nekazal ingurune batean bizi, jausitako etxeak berreraiki, lurra landu, ... Bi herrien eraberritzeko planak ere jadanik aurkeztuak dituzte.

Herri hustuak

Herri hauetara hurbildu zirenean, Nafarroako hustutako bi herri besterik ez ziren. Arizkuren eliza eta jausitako laupabost etxe zeuden, beraietan bizitza ez

zegoen laupabost etxe. Poliki poliki lanari ekin eta urte bete geroago beraietako batean bizi dira, gaur egun zutik dagoen etxe bakarrean. Biztanle berri hauek beren premiazko beharrak asetzeko egokitzapenak ere egin behar izan dituzte, ortuak landu eta barazkientzat egokitu, asto eta ahuntzen ikuiluak eta oilategia eraiki, ... Momentu honetan okindegia eta udaberrian amaizango diren bi neskentzat gelak prestatzen ari dira.

Artangan ere antzeko egoera dute. Etxebizitza guztiak jausita daude, eliza da egoera onenean dagoena, beraz, errezena berau konpontzea izango dela eta hemen hasi dira lanean. Ortu batzuk egiten ere hasiak daude, baita iturri zahar bat garbitu eta txukuntzen ere.



Txiki Zamora
Arizkuren

- **Zergatik erabaki zenuen nekazal herriska batera joatea eta ez hirira?**

- Mendia izugarri gustatzen zait eta naturagandik hurbilago bizi nahi nuen, mundu honetako zarata eta gizarte irenkor honetatik urruti.

- **Proiektu honetan nolako barne antolamendua daramazue?**

- Herri asanblada bidez funtzionatzen dugu, bertan 10 pertsona gaudelarik. Denok daukagu iritzia eta botua emateko eskubidea eta asanblada honetan gure beharrei nola erantzun erabakitzen da, gure egonezin eta protestak adieraziz. Pertsonen arteko arazoak ere hemen agertu behar dira, haundituz joan gabe denon artean konponbidea aurkitzeko.

- **Arazorik izan al duzue Nafarroako Foru Aldundiaz?**

- Arizkurenerako proiektu bat aurkeztu genuen, baina Foru Aldundian atzera bota ziguten. Honen ostean errekurso bat aurkeztu genuen eta ez dugu erantzunik izan, badirudi artxibatu egin dutela gure kasu hau. Orain "administrazio isiltasuna" deritzaion egoera batean gaude eta inolako berririk ez dugun bitartean hemen jarraituko dugu bizitzen.

Autosufizientzia

Badakite oraindik autosufiziente izatera heltzeko lan haundia egin behar dutela, baina horixe lortzea da hain zuzen beraien helburua. Arizkurenen momentu honetan, ahunzkume, aker eta ahuntzamen artean hogeitabat ahuntzez osatutako taldea dute eta hauengandik esnea lortzen dute. Bi txerri ere badituzte eta hainbat oilo. Irin integralez, berriz, ogia egiten dute eta ortu eta negutegian mota ezberdinetako barazki eta fruituak landu eta jasotzen dituzte. Hauekin eta merkatuetan atzera botatakoekin mermeladak eta kontserbak egiten saiatzen dira, urtean zehar ere jan ahal izateko.

Guzti honetarako dirua, zati haundi bat behintzat, San Fermintan ogitartekoak salduz lortu zuten. Handik eta hemendik, hau eta hori eginez dirua lortzen saiatzen dira, badakite eta dirurik gabe ezin dela bizi.

Makinei ezezkoa

Makinenganako menpekotasunik ere ez dute izan nahi, azken finean hauek natura hondatu besterik ez dutelako egiten, baina oso zaila da hau aurrera eramatea. "Arizkurenen Land Rover bat daukagu, ahalik eta gutxien erabiltzen saiatzen garena, baina ia mendian egonda oso ondo datorkigu beheko herrietara jeisteko" dio Txikik. Zuhaitzak mozteko motozerra bat ere erosi dute denbora asko aurrezten

"Land Rover bat daukagu, ahalik eta gutxien erabiltzen saiatzen garena"

delako, baina honek eragin ditzakeen kalteetaz jabetuta daude. "Behar beharrezkoa bada bakarrik erabiltzen dugu. Eskuzko zerrak ere baditugu eta presarik izan ezean, hauek erabiltzen dugu. Motozerrak, ordea, denbora gutxian lan bera egin ahal izatea dauka eta presazko momentuetarako oso ondo dator. Badakigu, bestalde, motozerraren olio eta gasoleoa oso kaltegarriak direla naturarentzat".



Txiki negutegiko barazkiei adi adi begira

Arazoak gobernuarekin

Nafarroako Foru Aldundiak beraiek aurkeztutako Arizkuren herriaren eraberritze proiektua atzera bota zuen. Errekurtso bat jarri zioten honi, baina ez dute inolako berririk izan ostean.

Ingurugiro sailarekin arazo haundiagoak izan dituzte, herrian pinu batzuk botatzeagatik isunak ezarri baitzizkien. Pinu hauek etxeak berreraikitze behar beharrezkoak ziren eta bota ostean garai batetako zelaia berreskuratu direla diote beraiek. "Gobernuaren ingurugiro politika ez da batere egokia eta hori salatu nahi genuke. Pinuak ekonomi interesengatik landatzen dituzte Ama Lurrarenganako inolako errespeturik gabe eta honek basoko ekosistema apurtzen du". Baserritarrei laguntza gehiago ez ematea ere ez dute batere ondo ikusten, politika horrek nekazal eta baserri inguruko mundua desagertzera eramango duelako.

Hiritara ihesaldia

Okupa hauen iritziz nekazaritzatik hirietara egindako ihesaldian arrazoi asko daude. Nekazaritzako lan gogorra, baserriaren jerarkizazioa, baserriko bizitzaren gutxiespena, ...

Industrian lan erreza goa eginik diru gehiago irabaziko duten esperantzaren jeisten direla diote hauek, balore asko galtzen direla ihesaldi horretan konturatu gabe.

Okupa hauek loturak hautsi eta askatasuna bilatzera animatzea nahiko lukete jendea. Beraiek asko ikasi dute lurrarengandik hurbilago egon eta berau landuaz, lagun taldean lanak eta eragozpenak bizitzeko eta askatasuna hurbiletik sentituz. Bizitzaren benetako esanahi eta balorea aurkitu dute hemen, hiriko argietatik eta zaratatik urrun, mendiko isiltasun eta iluntasunaren erdian.

Gure eskerrik beroena Rafa Zamorari erreportaia hau egiten ilusio haundiz lagundu digulako.

Herrian pinu batzuk botatzeagatik isunak ezarri zizkieten

Filosofia bat ete da edo bizitzeko era bat?

Kontsumismo, garapen eta Ama Lurrari min ematen dion guztiaren aurka daudela diote. Kontsumismoaren aurka dagoen filosofian oinarritu eta autosufiziente izan nahi dute, ahal den neurrian behintzat, multinazionalen esku dauden supermerkatuetara jo gabe. Birziklapenean oinarritzen dira, imajinazioa erabiliz, ezertarako balio ez duten gauza guztiei aurki baitaiekie beste erabilera bat, beste zerbitzu bat.

Bizitza mota honek hiri haundietan galdutako hainbat balore berreskuratzen laguntzen ei du, zuzentasuna, elkarren arteko laguntasuna, lurrarenganako errespetua, ... Gizakia, ordea, diruak ematen duen erosotasunetara ohitu da eta jadanik jendeak, gazteek batez ere, ez du baserri eta herri txikietan geratu nahi.

Bizitza mota gogorra da, ez dago zalantzarik, baina gizartearen inposaketa eta kontsumismotik urruti, gizakiak bere loturak apurtu eta bere bizitzaren jabe bakarria izaten ikasten du, aske izaten hain zuzen.



Benito Arnaiz Artanga

- Zergatik erabaki zenuen nekazal ingurune batera joatea eta ez hirira?

- Ni beti erakarri nau nekazal inguruneak, herri txiki bateko bizitzak. Horrelako lekuetan lan haundia dago egiteko, ortuak egin, etxeak berreraiki, ... Erosotasun gutxi izan arren, oso gustora nago eta aurrera jarraitzeko gogo haundiz.

- Nolako harremana duzue inguruko herrietako jendearekin?

- Artanga ehiza barruti batean kokatuta dago eta ehiztarien aldetik arazoren bat etor daitekeen arren, gaurdaino ez dugu izan. Eparoz herritik gerezi eta intxaurrak jasotzera baserritarrak etorri izan dira eta begi onez ikusten gaituzte.

- Zein ezberdintasun dago Aretxabaleta eta Artanga artean?

- Izugarriak. Aretxabaletan jendeak zortzi orduz lan egin beharra du eta astebukaera bakarrik geratzen zaie haizez aldatu eta zerbait ezberdina egiteko. Jendea bere lan eta familiar oso lotua dagoela iruditzen zait, horrek bakoitzak bere borondatez erabakiak hartzea eragozten du. Nekazal ingurunean naturagandik oso gertu bizitzeaz gain, gustoko ditugun beste aktibitate batzutarako denbora daukagu, egurra landu, ogia egin edo saiei begira egoteko esaterako.

Gazte-gaztetatik karatean

Oraindik ere izena eman daiteke karatean hasi nahi izanez gero



Karateko talde gazteena

Kiroletxean futbitoia, pala, squash-a, gimnasia, aerobic-a eta saskibaloia moduko kirolak lantzeaz gain, karatea ere egiten da. Bertan Odilo Vazquez karate mailua burubelarri ari da gazteen karate eta kirol zaletasuna bultzatu asmoz. Ez du gero pazientzia makala beharko gaztetxo hauen trebakuntza lor ahal izateko, ez baita erraza karateko terminologia, ezta bertan erabiltzen diren teknika samurrenak izanda ere erakustea.

Gurasoen eskaera

Aurtengo urteko maiatza inguruan guraso batzuen eskariari erantzunez, karatea martxan jarri zen kiroletxean. Kirolak erantzun ona jaso du eta gaur egun 25 bat neska-mutikok hartzen du parte klaseetan. Alde batetik 5 eta 9 urte bitartekoen taldea dago eta bede-

ratzi lagunez osatutako nagusiagoen beste bat. Odiloren iritziz modu honetan karatea zer den ezagutzeko aukera eskaintzen zaie gazteei.

Arte martziala

Jatorri japoniarra duen kirol hau arte martzialen barruan sartzen da. Hala ere, Odilok beste kirol bat gehiago moduan definitu nahi izan digu, "erabiltzen den janzkerak atentzioa deitzen duen arren". Beraiek lantzen duten karatea Kyokushinkai deitzen da eta gure bailaran hau praktikatzen da. Karatea golpeak ematean datzan kirola izanik, kolpe batzuk hilgarriak eta oso mingarriak ere izan daitezkeela dio. Honen aurrean Odilok beti zera esaten die bere ikasleei: "karatea jotzeko ez erabiltzeko, defenditzeko baizik".

Federatu karneta berrizteko ordua

Murruxiko ME-a datorren urterako federatu karnetak berritzen ari da eta aldaketarik egin edo baja edo alta eman nahi dutentzat oraintxe da aukera.

Iaztik, bestalde, federatzeko modalitatean aldaketa bat egon da. Europakoa desagertu eta maila horretan federatu nahi duenak mundu mailakoa aukeratu beharko du. Prezioak honako hauek dira: nazional maila: 6.350 pta. Gehigarriak: Pirinio Frantsesa: 1.350 pta; Mundu Maila: 5.600 pta; Espedizioak: 40.000 pta; Eski alpinoa: 1.500 pta; BBT: 1.000 pta. Honez gain, Espainiar federazioan federatu nahi izanez gero, 1.180 pta gehiago ordaindu beharko da. Honen federaziokoak diren refugioetan beharpenak eskaintzen ditu.

Gimnasioko oinarrizko ikastaroa

Kiroletxeko gimnasioko makina bakoitzaren erabilpena ezagutzeko ikastaroa antolatu da kiroletxean. Horretarako saio eredu baten azalpena egingo da eta baita gimnasioko lanaren oinarrizko planifikazioa ere.

Bost-hamar pertsonen osatutako talde txikiak izango dira, eta goizez 9,30etan eta arratsaldez 6etan emango dituzte, hauek ikasleen beharretara egokituko direlarik. Prezioa bazkideentzat 700 pta eta 1000 pta da gainontzekoentzat. Izena ematea kiroletxean egin daiteke 943 79 64 61 telefonoan.

ORTOPEDIA ORTO LAGUN

*Etxean gaixoren bat badaukazu,
zuri laguntzeko prest gaude*

- Ohe artikulatuak
- Zirkulazioa eragiteko koltxoiak...

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tfnoa: 943 79 89 34

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Jabier Eraña

Itsaso Gorriko altxorrak ezagutzen

Apirilean probatu zuen lehenengo aldiz urperatzearen esperientzia, eta ur azpiko munduak zeharo liluratuta utzi zuen. Orainsu Itsaso Gorriko altxorrak ezagutzeko aukera izan du, mila motatako arrainak, uretako landaretza eta aspaldi urperatutako itsasuntzien barrura sartzeko aukera ere bai.

Urperatzea lasaigarria eta stresaren kontrakoa dela garbi du Jabierrek.

• **Noiztik urpekaritza praktikatzen?**

Apirilean hasi nintzen Jon Etxeberrriak animatuta. Ikas-taroa egin nuen gero, eta ondoren ekipoa erosi nuen

• **Beraz, ez da horrenbeste denbora, nola animatu zinen Itsaso Gorrira joateko?**

Agian azkarregi izan bada ere, Mutrikuko lagun batzuk joan behar zuten eta beraiekin joatera animatu nintzen. Zortzi eguneko kruzero bat izan da.

• **Zer nolako esperientzia izan da Itsaso Gorrikoa?**

Liluragarria izan da. Hemen ez dagoen arrain espezie eta landaretza ugaria eta aberatsa dago han. Denetik ikusteko aukera izan dut: arrain tropikalak, tortugak, arrezifeak, koralak, tiburoiak... Kolore haundia.

Egunero lau bat aldiz urperatzen ginen. Goizean-goiz jaiki eta zazpietan uretan geunden. Hiru urperaketa egunez eta bat gauzez egiten genuen. Horrela gaueko bitzta ere ezagutzeko aukera izan dugu, niretzat esperientzia zeharo berria.

• **Zer da gehien erakarri zaituena?**

Zaila da esatea, dena gustatu



**“Urperatutako
itsasuntsi
zaharrak
bisitatzea izan da
erakargarriena”**

baitzait. Beharbada urperatutako itsasuntsiak, “pezioak” deitzen direnak. Itsaso Gorrian dagoen itsasuntsi urperatu ezagunena ezagutu dugu: Thistlegorm-a. Itsas azaletik 30 metrora dago. Bigarren mundu gerran alemanek urperatu zuten itsasuntsi ingelesa da. Barruan kotxeak, bagoiak, tankeak... eramaten zituen eta oraindik ere bertan daude. Bodegetan sartu ginen, kotxeak eta motorrak urperatu ziren egunean bezala daude, iladan, baina hori bai arrezifez eta koralez beteak.

• **Eta tiburoiak inguruan izan**

dituzue hortaz?

Bai, ez ei dira arriskutsuak. Hasieran beldurtu egin nintzen, baina ez ziren guregana inguratzen, beldurtu egiten ziren.

• **Hemengo kostan non ibiltzen zara?**

Momentuz Mutriku aldean ibiltzen gara. Baina badut beste leku batzutarra joateko asmoa ere, Zierbana, Hondarribi, Castro... Orain ura oso hotza dago eta aurtengoa bukatutzat eman beharko dugu datorren urterarte. Urak epelagotzen hasten diren arte.

• **Diferentzia haundia dute hemengo itsasoak eta Itsaso Gorriak?**

Bai, temperatura alde batera utzita, ikuspena ere askoz haundiagoa da han. Itsaso Gorriko bitzta askoz ere aberatsagoa da eta era guztietako espezieak ikus daitezke bertan.

• **Beste itsasorik ezagutzeko asmorik baduzu?**

Malbina irlak, Galapagoak edo Australiako itsasoak bisitatzea ondo egongo litzateke. Hiru leku hauek Itsaso Gorriaz batera urperatzeko lekuri ezagunenetakoak dira.

• **Kirola edo afizioa da zuretzat urpekaritza?**


Afizioa. Oso lasaigarria da eta ur barruan guztiz apurtzen da kanpoko munduaz. Stresarentzat egokia dela esango nuke.

• **Arriskutsua dela esan daiteke?**

Ez dut uste arriskutsua denik, beste kirol batzuk askoz ere arriskutsuagoak dira, alpinismoa, eskalatzea... Hori bai, urpekaritza ez da bakarrik praktikatu behar, beti lagun batekin joan behar da edo taldean. Gainera bonbona batek huts eginez gero, ordezko bat eramaten da.

Zaborra


Behar den unean dagokion gunean



Zabor Bilketa:

Igande, Astearte eta Ostegunetara

21:00etatik 22:00etara



DEBA GARAICO MANKOMUNITATEA
COMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Poloniren astoa

ende gehientsuenak izango du **Mendiolako Poloni eta bere astoaren berri**, 20 bat urtean esnea saltzera jeitsi baitzen astoarekin Mendiolatik. Hasieran astegunetan Poloni eta domeketan bere ama etortzen baziren ere, gero bera etorri ohi zen egunero, eguraldi ona nahiz txarra egin. Bere eginbeharra kaleko 13-14 bat etxetan azunbre, azunbre eta erdi edo hiru kuartilo esne saltzea zen, astotxoak pazientzia haundiz itxaroten zion bitartean. Hasieran Etxabe harategi aurrean uzten zuen astoa, beste askorekin batera, gero Beroa lantegi ingurura eramaten hasi zen, gaur egun okindegia dagoen lekura, eta ondoren San Martinen, Kopreziko zubiko hesiari lotuta gelditzen zen. Egunen batzutan argi posteari lotuta ere utzi izan zuen, baina norbaitek ez zela ona esan eta hesira pasatu zuen.

Ordu asko pasatzen zituen Polonik kalean eta astoak etxera joateko gogoia izanda, hurbiltzen zitzaionean arrantzaka hasten zen. Azkenengoa Mazpelako Agarre baseritik ekarri zioten, baina ezin izan zuen kalera askotan jeitsi kotxeekin beldurtu egiten baitzen, beraz, asto zaharrek jarraitu behar lanean. Azken asto hau, Agarre izenekoa, oraindik etxean daukate, eta aste honetan bertan gainera, perratzaileak azazkalak dotore dotore jarri dizkio.

Polonik gaur egun 75 urte ditu eta orain zortzi bat utzi zion kalera esnea saltzera etortzeari, hori bai marka.

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETAKO



MAPFRE Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

Etxabe harategia

Durana 4
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57

LANA

◆ **EMUN KOOP. ELKAR-TEAK** enpresetan lan egiteko **hizkuntz teknikariak** behar ditu. Enpresen ezagutza baloratuko da. Interesatuok bidali curriculum vitae-a eta argazki bat, abenduaren 4a baino lehen Arrasateko 227 postakutxatilara.

◆ **Majisteritza** egin duen pertsona batek klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 943 79 06 81

◆ **Langaiko lan eskaintza**

2 peoi. Bilbo.
Ref: 14025/4

Ileapaintzailea. Bilbo.
Ref: 13580/5

Jangelako arduraduna. Markina-Ondarroa.
Ref: 13763/4


2 soldadore. Gasteizko ETTk.
Ref: 14288/3

Zenbaki kontrolaz zorroztailea. Durango. Ref: 14310/1

Peoia. Berriz.
Ref: 14372

Fabrikazio zuzendaria. Bilbo.
Ref: 14568/3

◆ **Lan eskaintza publikoak**



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

Nafarroako Foru Erkidegoa. Medikuntza prebentiboa eta osasun publikoko espezialista: 5 lanpostu. Epea: 98/12/2

Arkitekto lanpostua. Arrasateko Udala. Oinarriak udaletxean jaso daitezke. GAOn azaroaren 11n argitaratu zen.

Administraria. Azkoitiako Udala. Epea: BOEn argitaratzeko zain. Oinarriak GAOn 98/10/26.

DENETARIK

◆ Ordenadore bat saldu nahi da. Interesatuok 943 79 40 29 telefono zenbakira deitu.

◆ Gurpil aulkirik, taka-takarik edo makulurik egoera onean eduki eta ez badituzu behar, beste pertsona batzuk horren beharrean egon daitezkeela pentsa ezazu eta deitu hurrengo telefono zenbakira 943 77 03 46 / 77 12 37 (Bego Falces, Osakidetza gizarte laguntzailea).

ETXEBIZITZA

◆ **Garaje bat** saldu nahi da Andra Mari auzunean. Interesatuok 943 79 68 35 telefono zenbakira deitu.

LEHIAKETAK

◆ **Leintz bailarako VIII. argazki rallya.** Aretxabaletako Eguzki Alde elkarteak antolatua. Azaroaren 29an, goizeko 8,30etan hasi eta eguerdiko ordu 2etan bukatuko da. Argazkiak koloretan izango dira, 10 gai egongo direlarik. 13 argazkitatik 10 entregatu beharra dago eta hauekin ondorengo egunetan erakusketa egingo dute elkarteak. Sariak: 1., 2. eta 3. multzo onenari; euskaldun gai onenari, gai libre onenari eta argazki onenari emango zaie. Izena ematean berriz, 1.200 pta. ordaindu beharko da.

◆ **Eskaparate lehiaketa.** Gabonetako ekitaldien barruan Aretxabaletako Kultura Sailak eskaparate lehiaketa antolatu du.

◆ **Atxabalta telebista logotipo lehiaketa.** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak herriko telebistarako logotipo lehiaketa antolatu du. Logotipoak Atxabalta telebista izena eraman beharko du. Lanak Aretxagazetara ekarri beharko dira abenduaren 11a baino lehen. Saria 25.000 pta.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxes: 943 79 34 28

CONSUM EROSKI

Orain arraindegi eta okindegiak, zator!

Mitarte kalea z/g 954 79 92 11
ARETXABALETAKO

zero azpitik



zion aurreko igandeko hotzari, kultur errotak igandean bertan herrian eginiko estreinaldian. Kultur errotak aurrera darrai eta hurrengo emanaldia abenduaren 4an izango da Michel Ducau eta Caroline Philips-en eskutik. Eskeintza paregabea kultur errotak Lora-mendiko lokal berrira dakarrena.

Astelehenean bertan makina bat haur bildu ziren liburutegian **Antton Irusta** ipuinkontalariaren ondoan. Behin eta berriro bueltaka dabilkidan hotzari erremedio ezin hobea bilatu zion Anttonek.

Haurrekin ez baina argazkiekin jarraituz Murruxok antolatutako mendi aste barruan ospatu zen diapositiba rallyaren irabazleen izenak ditut, eskusiban gainera. Irabazlea **Kester Lovett** ingeles atxabaltartua izan da, bigarrena **Elena Cano** eta hirugarrena **Iban Valle**. Ea diapositibok ikusi eta gozatzeko aukera daukagun dotoreak direla esan baitidate.

Hotza, hotza, hotza... **German Gonzalezek** behintzat hankak bero-bero dituela igaroko du negua. Herri Irratian aurreko batean Erreal eta Athleticen arteko derbiaren emaitza asmatu ondoren zapata pareta tokatu baitzaio. Germanek behintzat oinak bero-bero. Bitartean beste danok abestu, dantzatu, mugitu... geldirik behintzat ez gaitezen egon.

Gustora asko nago txoko honetan. Kalera begiratu orduko mukiak dantzan hasten zaizkit. Termometroa zoratu egin ote zaidan galdetzen diot neure buruari. Baina eguraldia bera da aspadian astoratuta dabilkiguna. Lekutan geratu da poeten urtaroa!

Jakina da hegaztiekin negua aukeratzen dutela lurralde epelagoetara emigratzeko...eta basurdeek? Antza, emigratzeko asmotan zebilen basurde talde bat herritik pasatu zen astea. Azken aldiko tenperatura latzok eraginda, basurde taldeak ere emigratzea erabakiko zuen.

Baina hotz honi aurre egiteko modu onenetariko **Juan Luis Lekunberriek** aukeratutakoa dugu. Arrasate aldean kafe pianoan edota Mondragon hotelean kantari ibili baita piano ta guzti. **Biluma** taldeak ere kantari egin

Liburutegiko txokoa



Antton Irusta ipuin kontalaria

Astelehenean 5. mailako neska mutikoei Antton Irusta ipuin kontalariaren ipuinak entzuteko parada izan zuten Udal Liburutegian. Antton Usansolon jaioa da eta irakasle izateaz gain ipuinak kontatzen ere aritzen da han eta hemen. Ipuin horietako batzuk "**Kontalaria**" liburuan bildu zituen 1996an. Bertan mundu guztiko ipuinak batzen ditu 10 urtetik aurrerako irakurleeri zuzenduta. Urte berean argitaratutakoa da "**Katxin**" bere bigarren liburua ere eta zortzi urtetik aurrera irakurtzeko modukoa. Eskeini zigun saioa liburu honetan oinarrituta zegoen eta Katxin mutil baserritar azkarraren pasadizoak kontatzen dizkigu bertan. Laister baten Durangoko azokarako beste liburu bat ere ateratzekotan da.

Bere ipuinak entzuten gozatu zuenak liburu hauek ere gustora hartuko dituela uste dut eta entzun ez zuenak hor du aukera ipuin eder horiek ezagutzeko.

Joseba Lopez de Armentia

AZAROA

27-28

29

26 eguna

HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO III. JARDUNALDIAK
Arrasateko ARKOk antolatua herri aldizkari eta telebistei zuzendua dago. Gai ezberdinak jorratu-ko dira hainbat hizlariren eskutik.

HITZALDIA

Emakumeen tratu txarrei buruzko hitzaldia Loramendi Euskara Elkartek antolatua, udaletxe zaharrea arratsaldeko 6,30etan. Hizlaria Nekane San Miguel izango da.

BILERA

XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari kanpaina aurrera eramateko herri batzordea sortzeko bilera. Udaletxe zaharrea arratsaldeko 8etan.

27 egukotxa

BERTSO AFARIA

Loramendi Euskara Elkartek antolatua.

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX ESKORIATZAN

Pailasoen azkenengo ikuskizunaren estreinaldia. Eskoriatzako polikiroldegian arratsaldeko 5etan Axtrokik antolatua.

ANTZERKIA

Ñake taldeak "Cómicos muy peligrosos" antzezlan aurreratu du Arrasateko Amaia Antzokian gaueko 22,30etan. Sarrera 800 pta. izango da eta gazte txartela-rekin 600 pta.

28

zapatua

LEINTZ BAILARAKO VIII. ARGAZKI RALLYA

Aretxabaletako Eguzki Alde elkarteak antolatua goizeko 8,30etan emango zaio hasiera elkar-teen bertan.

JAIALDI ERRALDOIA

EGINGO DUGU kanpainaren alde Donostiako Anoetako Belodromoan.

ABENDUA

2

eguaztena

HITZALDIA

Euroari buruzko hitzaldia Berbaritik antolatua. Hizlaria Fernando Retolaza izango da eta merkata-ri, dendari eta Aretxabaletako elkartei zuzendua egon arren, inter-esa duen edonor hurbil daiteke arratsaldeko 8,15etan udaletxe zaharrera.

"ARINSA"

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tfnoa: 943 79 62 80
ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83 ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

3

eguna

HITZALDIA

Tril emakume taldeak antolatua azalaren zainketari buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan udaletxe zaharrean. Hizlariak Gemes aizpak izango dira.

4

egukotxa

ANTZERKIA ETA KONTZERTUA

Kultur errotaren barruan **Ander Lipus** antzerkilaria eta **Michel Ducau eta Caroline Philips** abeslariak izango dira udaletxe zaharrean gaueko 10,30etan.

5

zapatua

AKORDEOI KONTZERTUA

Iñigo Aizpiolea Irundarrak akordeoi kontzertua eskainiko du arratsaldeko 8,30etan Aretxabaletako parrokian.

IKASTAROAK**BAINIKA ETA GANTXILO IKASTAROA**

Taldea osatu gabe aurkitzen delako ikastaroa hasi ezinka dago. Interesatuok lehenbailehen hurbil zaitezte Kultur etxera izena ematera eta jendea pilatu bezain laster emango zaio hasiera ikastaroari.

GERONTOLOGIAKO IKASTARO ESPEZIALIZATUA

ICTEk antolatua, hirugarren adinekoen zaintzaile, senide, osasun alorreko langile, etxez-etxe laguntzaile erresidentzietako langile eta bestelako interesatuei zuzendua dago. Abenduaren 10ean hasi eta 18an bukatu da, 20 orduko iraupena izanik, ordutegia berriz, arratsaldeko 3,30etatik 6,30etara izango da. Argibide eta izen emateak: ICTE (Instituto Comunitario de Tercera Edad)
Avenida de Navarra z/g
Arrasate
Tfnoak: 943 77 16 99 / 77 17 15

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43



Maritxuk Lili izeneko den-
da txikia zabaldu zuene-
tik 28 urte pasatu dira.
Tartean denda itxi eta
beste bi leku berritan ere
jarri du. Azken hau hiru-
garren denda du eta hau
ere mertzeria. Gustoko
du dendari lana, batez
ere bezeroekin izaten
den harremanagatik.

• Nolatan hirugarren denda?

Lehena ezkondu nintzenez zabaldu
nuen, eta bigarren semea euki nuenean
itxi. Orduan ez nuen uste atzera denda
zabalduko nuenik, gogorra egin zitzaie-
dan semea eta denda biak aurrera
ateratzea eta.

• Denda txikien etorkizuna nola
ikusten duzu?

“Mendia eta pasiatzea asko gustatzen zaizkit”

Dendak espezializatu egin beharko
liratekela esaten dute baina auzoetako
jendea pozik izateko denetik apur bat
izan behar da. Dena dela, gure egoera
ez dago samur.

• Zer eskaintzen dute denda txi-
kiek haundien aldean?

Konfidantza, gauzak etxera erama-
teko esaterako. Prezioan, berriz, ezin
dugu denda haundiekin konpetitu.

• Zein izaten da eguneko mo-
menturik frankilena dendan?

Goizeko lehen ordua.

• Bezeroei euskaraz ala erdaraz?

Euskaldunei duda barik euskaraz,
baina, jakina, bietatik egin beharra
dago.

• Zer da dendako lanetik gutxien
gustatzen zaizuna?

Zapatuan zabalitzea.

• Eta gehien?

Jendearekin izaten den harremana.

• Herriko zein leku gustatzen
zaizu bizitzeko?

Portasol aldea gustatzen zait, baina
zerbitzu gutxi ditugu eta kalera jeitsi
behar izaten gara sarri.

• Zer botatzen duzu faltan he-
rrian?

Udarako kanpoko pistina bat egongo
balitz...

• Erroparik komodoena?

Frakak.

• Zer egiten duzu afal ostean?

Oinez pasio bat egitera irteten dut,
zazpi bat kilometro edo egiten ditut
egunero.

• Zer egitea gustatuko litzazuke
jubilatutakoan?

Bidaiatzea eta kirola egitea.

• Etxean lorarik?

Kanpoan jeranioak izaten ditut.

• Astebukaeretan zer egiten
duzu?

Mendira joaten naiz.

• Bainatu ala dufxatu?

Dufxatu.

• Osasuntsu mantentzeko ahol-
kurik?

Gustora bizi, lo ondo egin eta ondo
elikatatu. Baina batzutan hori ez da
nahikoa.

• Gaztainak erreta, gordinik ala
egosita?

Erreta.

• Zer moduz doaz aurreko obrak?

Parera ez dira heldu baina beldurrez
ikaraka nago.

KOMIKIA

BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 943 79 20 89

Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 77 03 08

Zaraia taberna

MANTEKA ANAIK

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Urbaltz taberna



URBALTZ TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Arlutz taberna

ARLUTZ TABERNA

Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 32 34

Artano taberna

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Bazter alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro
onenean

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABALETA

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

Express akeitegia

Express akeitegia

zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
☎ 943 79 23 43

Matikua jatetxea



Jatetxea eta taberna


Azatza auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

IZOTZ TABERNA

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 943 79 01 29
Aretxabaleta

Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



♦ Bazkari
eta afariak

Asteleheneretan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldeak



Sofa
leku

GRUPO
Amuebladora
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791498